EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

## BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK


1. Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak ....2
2. Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak ...4
3. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetza proiektuak garatzeko diru-laguntza ....5
4. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak ....6
5. Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak ....7
6. Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko ....9
7. Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentzat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako ..10
8. Abokatuen Elkargoak. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda ....11
9. Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda ....13
10. Abokatuen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak ....14
11. Prokuradoreen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak ....15
12. Euskal Autonomia Erkidegoko presoak eta zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetarako diru-laguntza ....16
13. Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak ....18
14. Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat ....20
15. Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2020.urterako ....21
16. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa ....22
17. Familiei laguntzeko neurri espezifikoen programa, COVID-19 koronabirusaren eragin ekonomikoari premiazko erantzuna emateko ....24
18. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa ....26
19. Udal mailako Harrera-sarea sendotzea: Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa) eta Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa). ....29
20. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak ....31
21. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak ....32
22. Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa ....33
23. Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa ....34
24. Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa ....35

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko azaroaren 27koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2020. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Araua eta deialdia: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/12/1905781e.pdf<br>Emate-erabakia: http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/01/2100212e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Programaren helburua da gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldeaz gaindiko urteroko jarduera programak egikaritzen laguntzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastaroak egitea, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2020. urtean 70 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 52k lortu dute diru-laguntza, 3k uko egin diote eskaerei, eta beste 15eri hainbat arrazoirengatik ukatu zaie (deialdian eskatutako gutxieneko autofinantzaketara ez iristeagatik, Lurralde Historiko bateko hartzaileei zuzendutako jarduerak izateagatik, edo deialdiaren aplikazio-esparrutik kanpo zeudelako). Ondoren, 4 erakunde onuradunek uko egin zioten emandako diru-laguntzari, beren jarduerak garatzea ezinezkoa izan zelako Covid-19ak eragindako osasun-krisiagatik eta urruntze sozialerako eta mugikortasuna murrizteko hartutako neurriengatik.<br><br>Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 525.125 eurokoa izan da guztira (bideratutako zuzkidura ekonomikoaren, 536.000 €, %97,97):<br>a) Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 359.171 euro.<br>b) Dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak: 19.740 euro.<br>c) Azkenik, urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 146.214 euro.<br><br>Eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Emandako diru-laguntzak | 55 | 52 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko azaroaren 20koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2020. urtean gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/12/1905726e.pdf

Emate-erabakia: http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/07/2002960e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartrukerako jarduerak gauzatzen laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

25 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 20k diru-laguntza lortu dute eta 5eri ukatu egin zaie diru-laguntza deialdian ezarritako betekizunekin bat ez datozelako. Ondoren, 5 erakunde onuradunek uko egin zioten emandako diru-laguntzari, beren jarduerak garatzea ezinezkoa izan zelako Covid-19ak eragindako osasun-krisiagatik eta urruntze sozialerako eta mugikortasuna murrizteko hartutako neurriengatik.

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 144.882 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (145.000 €) %99,92, alegia.

Diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Emandako diru-laguntzak | 20 | 20 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetza proiektuak garatzeko diru-laguntza** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko azaroaren 20koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinek garapen-lankidetzarako entitateei dei egiten baitie Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2020ko «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkez ditzaten. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Araua eta deialdia: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/12/1905560e.pdf<br>Atzera egitea: AGINDUA, 2020ko urriaren 14koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez atzera egiten baita garapenerako lankidetzako erakundeei 2020an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkezteko deialdia. https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/10/2004384e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Euskadiko GGKEentzako diru-laguntza da, hiru hiletan Euskadiko 100 gazte gehienez hartuko dituzten lankidetza proiektuak aurkez ditzaten. Programaren helburua da Euskadiko gazteak elkartasun eta parte-hartze balioetan sentsibilizatzea.<br><br>GGKEek 700 euro jasotzen dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen kooperante bakoitzagatik. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Programa ezin izan da 2020an garatu, Covid-19ak eragindako osasun-krisiagatik eta 100 gazte parte-hartzaileen mugikortasunak zekarren arrisku handiagatik, arrisku are larriagoa kontuan izanda proiektuak burutzen diren garapen bidean dauden herrialdeetako osasun-sistemen egoera ahula. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Parte-hartzaileak | 100 | 0 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko azaroaren 22koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako 2020ko deialdia egiteko dena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Araua eta deialdia: http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/12/1905632e.pdf<br>Emate-erabakia: AGINDUA, 2020ko urriaren 14koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez atzera egiten baita 2020ko «Euskal Gazteak Lankidetzan» programaren deialdiaren prozeduran. http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/10/2004385e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| 2019ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako proiektuak aurkezteko garapen-lankidetzarako erakundeei dei egiten dien Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko azaroaren 20ko Aginduan xedatutakoari jarraiki, hautatutako herrialde eta lankidetza-proiektu jakinetara 22 urtetik 30 urtera arteko 100 gazte gehienez joateko erraztasunak ematea da diru-laguntza programa honen helburua.<br><br>Bidaia-gastuetarako eta, hala badagokio, hautatutako pertsonak destinoko herrialdean sartzeko bisaren gastuetarako programa honek 2020ko ekitaldirako guztira duen gehieneko zenbatekoa 175.000 eurokoa da. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa ezin izan da 2020an garatu, Covid-19ak eragindako osasun-krisiagatik eta 100 gazte parte-hartzaileen mugikortasunak zekarren arrisku handiagatik, arrisku are larriagoa kontuan izanda proiektuak burutzen diren garapen bidean dauden herrialdeetako osasun-sistemen egoera ahula. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| kontratua | 3 | 0 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak**

2.- Araua

Agindua, 2020ko ekainaren 24koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Haren bitartez, tokiko eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-ekipamenduen sarea 2020an bultzatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautu eta deitzen da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/07/2002573e.pdf
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/02/2100708e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko diru-laguntzak ematea.

Diruz lagundu daitekeen esparrua: Ekitaldian, espezifikoki 12-30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak hartzeko etxebizitzak eraikitzeko, berritzeko, egokitzeko edo handitzeko proiektuak egiteko gaituta dauden profesionalen proiektuen gastuak, bai eta halako obrak egiteko gastuak edo kostua ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

15 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 11k diru-laguntza lortu dute eta beste 2 ukatu egin dira (deialdian ezarritako betekizunekin bat ez etortzeagatik). Ondoren, 2 erakunde onuradunek uko egin zioten emandako diru-laguntzari, ezin izan zituztelako aurreikusitako ekimenak garatu.

2020an Covid-19 pandemiaren ondorioz bizi izandako egoerak eragin sozial eta ekonomiko handia izan du toki-erakundeetan, eta zaildu edo eragotzi egin du haien proiektuak gauzatzea.

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 100.074 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (290.000 €) %34,51, alegia.

Gazte-ekipamenduen funtzionamenduak eragin sozial handia suposatzen du sustapenari dagokionez, bai eta gazteen garapen pertsonalari eta taldekakoari dagokionez ere; izan ere, toki esparruko gazte-ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea euskal gazteriaren behar eta eskaeren erantzun instituzionalean sartzen da. Beraz, tokiko esparruaren hurbiltasun handiagoa aintzat hartuta, zerbitzu eta ekipamenduen emate zuzenari dagokionez, kasu honetan, gazteei, toki esparruan pixkanaka gazte arloko ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea handitzeak gazteen bizi-kalitatea hobetu eta euren aisia eta denbora librea egoki erabil dezaten laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Emandako diru-laguntzak | 20 | 11 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko** |

2.- Araua

| |
|---|
| Agindua, 2019ko irailaren 2koa, Lan eta Justizia sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2020ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| -Deialdia: Agindua, 2019ko irailaren 2koaEHAA 185 zbk. 2019ko irailaren 30koa<br>-Ebazpena: 2020ko urtarrilaren 15eko Ebazpena. EHAA 23 zbk. 2020ko otsailaren 7koa |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Diru-laguntza lerroa, zuzenbideko lizentziadunak motibatzea helburu duena beren lanbide asmoak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora bidera ditzaten. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi hori egin ondoren, xede horretarako aurreikusitako 40 beketatik 20 eman dira.<br><br>Baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina handiak izan dira, bai eskatzaileen kopuruagatik, bai kidego judizial horietan sarbidea izan duten onuradunen kopuruagatik, azkenean Euskal Autonomia Erkidegokoa justizia aparatuan integratuko baitira. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Eskatzaile kopurua | Zehaztugabea | 31 |
| Oposizioa gainditzen duten onuradunak | Zehaztugabea | Zehaztugabea |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentzat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako** |

2.- Araua

| |
|---|
| -411/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Bake Justiziari buruzkoa.<br>-2020ko azaroaren 4ko Agindua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei bake-epaitegien 2020ko funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak emateko dena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| EHAA, 233 zbk., 2020ko azaroaren 23 |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Botere Judizialaren Lege Organikoak udalerriaren eremuan txertatutako organo gisa eratzen ditu Bake Epaitegiak, eta horregatik ez zaio uko egin udalen lankidetzari organo horien baliabide materialak hornitzeari dagokionean.<br><br>Horiek horrela, abenduaren 28ko 38/1988 Legean, Mugape eta Planta Judizialari buruzkoan, 50. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenei jarraituz, diru-laguntza programa bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gai honetan dituzten premiei sostengu ekonomikoa emateko.<br><br>Horregatik, 1990 urteaz geroztik Dekretu eta Agindu multzo bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako laguntzak arautu eta haietarako deialdiak egiteko, Bake Epaitegietako funtzionamendu-gastuei aurre egiteko asmoz. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Aurrekontuan sartutako zenbatekoaren (500.000 €) % 92,19 gauzatu da (460.975 €).<br><br>Lortutako emaitzak deialdian aurreikusitako berak dira; baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina garrantzitsuak izan dira, Bake Epaitegia duten 236 udalei eman baitzaizkie funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| 236 Udalen diru-laguntzen zuriketa | % 100 | % 100 |
| Aurrekontu-exekuzioaren zenbatekoa eta ehunekoa | % 100 | % 100 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Abokatuen Elkargoak. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda**

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:
https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da benetako babes judizialerako sarbidea bermatzea – Konstituzioaren 119. artikuluan aipatzen da – Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenei, bai eta beste pertsona eta erakunde onuradun batzuei ere, zeinei 1/1996 Legeak zuzenean aitortzen baitie doako defentsa eta ordezkaritzarako eskubidea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitza hauxe da: estatu demokratiko batean herritarrek kalitatezko doako justizia izateko duten eskubidea bermatzea, Konstituzioaren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondorioz, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen zaien pertsonak auziaren kostutik salbuetsita geratzen dira, eta eskubidea dute behar adinako kualifikazioa duen abokatu baten doako aholkularitza eta defentsa jasotzeko, eta prokuradore batek ordezkatzeko. Administrazioak finantzatzen du zerbitzu publiko hori. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko jarduera Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuetan (OJZ) hasten da, eta, ondoren, espedienteak.

1412 Programaren Memorian GJHko 3 Batzordeen artean egin beharreko 66 saio jasotzen ziren. Aurreikuspen hori murriztu egin zen COVID-19ren eta horren ondorengo etxeko konfinamenduaren eraginez, martxotik maiatzera bitartean; beraz, 3 batzordeen 50 bilera egin ziren guztira.

8.000 euroko gastua egin da kide anitzeko organo horien bileretara joateagatiko kalte-ordainen kontzeptuan.

Memoriaren arabera, 6.000 DLJko espediente zeuden Araban, 8.500 Gipuzkoan eta 16.000 Bizkaian. Guztira, DLJko 30.500 espediente kalkulatu ziren. Eta 2020ko ekitaldi ekonomikoan egindako likidazioen ondoriozko datuen arabera, 5.315 Araban, 13.721 Bizkaian eta 8.474 Gipuzkoan, 27.510 guztira; hau da, 2019. urtearekin alderatuta, %14ko beherakada izan da. Jaitsieraren arrazoia pandemiaren egoerari ere

egotzi behar zaio; izan ere, hilabete batzuetan orientazio juridikoko zerbitzuak itxita egon ziren jendeari arreta emateko.

Memoriak %80an ezartzen zituen eskubidea aitortzen duten ebazpenak, eta datuen arabera, kopuru hori %88ra igotzen da. 24.173 kasutan eman zen eskubidea aitortzearen aldeko ebazpena (hemen barne hartuta genero-indarkeriagatiko eta etxeko indarkeriagatiko aldeko edo aldeko ebazpena), emandako ebazpenetatik 27.510 guztira.

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko honen gizarte-inpaktuaren ebaluazioa konstituzio-agindu bat formalki betetzea da, abokatuak doako defentsa egin baitie prozedura judizialetarako legez ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Aurreikuspen-adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Jarduera profesionalen kopurua | 30.500 | 27.510 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda** |

2.- Araua

| |
|---|
| 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).<br>153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| 153/2018 Dekretua:<br>https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/ |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Programaren helburua da auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek benetako babes judiziala izango dutela bermatzea; eta beste pertsona eta erakunde onuradun batzuk ere bai, 1/1996 Legeak zuzenean aitortzen baitie doako defentsa eta ordezkaritzarako eskubidea. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko honen eragin sozialaren ebaluazioa konstituzio-agindu bat formalki betetzea da, prokuradore batek doako ordezkaritza eman baitie prozedura judizialetarako legez ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Aurreikuspen-adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| (Ez dago ezarrita) | | |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Abokatuen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak**

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:
https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkaritzako zerbitzuen elkargo-kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionalei zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko ardura ematen die. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek diruz lagunduko dituzte Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboari eusteko abokatuen elkargoek egiten dituzten gastuak, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea ziurtatzeko eta bermatzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatuz 38) Abokatuen elkargoei Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboak eragindako urteko kostuak egiaztatu ondoren, 2020rako aurrekontuetan ezarritako zenbatekoak ordaindu zaizkie.

Lortutako emaitzak finantzaketaren nahitaezkotasuna ezartzen duten arauetan aurreikusitakoak dira, eta horrekin horien bideragarritasuna bermatzen da, ezinbestekoa baita erabateko erabilgarritasun eta inpaktu soziala duen zerbitzu publiko baten funtzionamendu operatiboa ziurtatzea. Abokatuen Elkargoentzako kontraprestazio bat da, doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamendu operatiboak, herritarrei prozesuaren aurretik aholkularitza eta orientazioa emateaz arduratzen diren unitateek eta eskatutako uzien behin-behineko kalifikazioak sortzen dieten kostua ordaintzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Aurreikuspen-adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| (Ez dago ezarrita) | | |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Prokuradoreen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak** |

2.- Araua

| |
|---|
| 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).<br>153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| 153/2018 Dekretua:<br>https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/ |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| 1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkaritzako zerbitzuen elkargo-kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionalei zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko ardura ematen die. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek diruz lagunduko dituzte Prokuradoreen Elkargoek beren zerbitzuen funtzionamendu operatiboari eusteko egiten dituzten gastuak, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea ziurtatzeko eta bermatzeko helburuarekin. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatzea eta betetzea erraztu da, babes gutxien duten herritarrei benetako babes judiziala berdintasun-baldintzetan eskuratzea eragozten dieten oztopoak kentzeko. Lortutako emaitzak horiek lortzera behartzen duten arauek aurreikusitakoak dira, eta horrek haien erabilgarritasuna eta gizarte-eragina bermatzen du, kontraprestazio bat baita prokuradoreen elkargoentzat, doako laguntza juridikoaren onuradunentzako ofiziozko txandaren funtzionamenduagatik. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Aurreikuspen-adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| (Ez dago ezarrita) | | |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko presoak eta zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetarako diru-laguntza**

2.- Araua

Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden eta askatasunaz gabetzeko zigorra duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako eta askatasunaz gabetzeko zigorra etenda duten zigortuentzako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia egiten duen Aginduaren argitalpena (EHAA zkia 126, 2020/06/29koa):
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002542e.pdf
Emate-ebazpenaren argitalpena (EHAA zkia 47, 2021/03/05ekoa):
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101334e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da irabazi-asmorik gabeko erakundeek gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak garatzea espetxeetan dauden edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuentzat eta askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etenda duten pertsonentzat.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020an, zigortuak eta presoak gizarteratzearen alde lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko 31 erakundek 42 inklusio-proiektu aurkeztu dituzte. Horietatik, 36 proiektuk jaso zuten diru-laguntza, eta deialdiaren zuzkidura agortu egin zen. Hona hemen diruz lagundutako proiektuen zehaztasunak modalitateka:

| **Modalitatea** | **Diruz lagundutako proiektuen kopurua** | **Esleitutako dirulaguntzak** |
|---|---|---|
| Esku-hartze psikoterapeutikoko eta sozioedukatiboko programak | 8 | 108.512 € |
| Irteera programatuak eta auzolandegiak | 1 | 8.330 € |
| Egoitza – eta ostatu-baliabideak | 3 | 48.894 € |
| Droga-mendekoak gizarteratzeko baliabideak | 3 | 58.244 € |
| Prestakuntza – eta trebakuntza-zentroak | 8 | 104.326 € |
| Enplegurako orientazio – eta laguntza-zentroak | 10 | 149.761 € |
| Askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena eteteko neurria onartu zaien pertsona zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak | 3 | 21.933 € |
| **Total** | 36 | 500.000 € |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak | 45 | 36 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2020ko otsailaren 12koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2020ko deialdia egiten da. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

- 271/2012 Dekretua https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/12/1205640a.pdf
- Deialdiaren agindua https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/12/1806353a.shtml
- Esleipenaren ebazpena https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/11/1905346a.shtml
- Esleipenaren ebazpena https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/11/1905347a.shtml
- Esleipenaren ebazpena https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/11/1905348a.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| 271/2012 Dekretuak, abenduaren 4koak, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen baititu, helburu nagusi bat du: Eusko Jaurlaritzak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei emango dizkien laguntzen esparru orokorra arautzea, gizarte-zerbitzuetako eta, oro har, esku-hartze sozialeko jarduerak finantzatzeko. Jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdiari dagokionez (Esku-hartze sozialeko jarduerak pertsona, familia, talde eta komunitateekin), 310 proiektu aurkeztu ziren, 179 erakunderen aldetik. Guztira, 129 erakunderi zegozkien 246 proiektu finantzatu genituen, eta, orotara, 3.717.489,00 € eman ziren.<br><br>Boluntariotza eta esku-hartze sozialeko elkarteen parte-hartzea indartzeko ildoan, 109 proiektu aurkeztu zituzten 89 erakundek. Guztira, 69 erakunderi zegozkien 86 proiektu finantzatu ziren, eta, orotara, 598.876,00 euro eman ziren. |

| |
|---|
| Esku-hartze sozialeko jakintzaren kudeaketa-jardueren ildoarekin lotuta, 82 erakundek 98 proiektu aurkeztu zituzten. Guztira, 54 erakunderi zegozkien 59 proiektu finantzatu ziren, eta, orotara, 326.820,00 euro eman ziren. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Erakunde kopurua (GIZ) | 268 | 310 |
| Erakunde kopurua (ELK) | 78 | 86 |
| Erakunde kopurua (JAK) | 51 | 58 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat** |

2.- Araua

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.
- Agindua, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena ─1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa─.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- 1/2004 Lege Organikoa: https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con
- AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/11/1404962e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatu dirulaguntza-programak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dirulaguntzak ezarriz, beren burua aurrera ateratzeko baliabide minimo batzuk eman nahi zaizkie, erasotzailearengandik independizatu ahal izateko enplegu bat lortu arte, hartarako zailtasunak izango dituztela uste denean, beren inguruabarrengatik (adina, prestakuntza orokorrik eta espezializaturik eza, eta bestelako inguruabar sozialak). Baliabide ekonomikoak ziurtatu nahi zaizkie emakume biktimei, errazago gizarteratu daitezen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

390 laguntza-eskabide izan dira 2020an: 2020an 320 jasotakoak, gehi konpondu gabe geratutako iazko 70.

390 eskabide horietatik 326 ebatzi dira (236 onartu, 77 baztertu eta 12 bertan behera utzi), eta 65 geratu dira 2021ean ebazteko.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako dirulaguntzaren aurrekontua 1.300.000 € izan da 2020ean. Ia dena gastatu da, hain zuzen ere 1.299.509 €.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Zenbat dirulaguntza eman diren | 350 | 236 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2020.urterako** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2020ko uztailaren 15koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita «Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2020.urterako. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Agindua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002959e.pdf<br>Ebazpena: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/11/2004833e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| «Euskadi Lagunkoia» proiektua Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimena da, herritarren eta sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren parte-hartzea sustatzen duena Euskadin lagunkoitasunaren aldeko mugimendu bat garatzeko, eta, horrekin batera, zahartzen ari diren pertsonentzako bizitza-ingurune erraztaileak sustatzeko.Kontuan hartuta Euskadin erakunde, organismo eta pertsona ugarik egiten dutela lan lagunkoitasunaren arloan, sari honen helburua da berrikuntza eta eraginkortasunagatik nabarmentzen diren jardunbide egokien balioa azpimarratzea adineko pertsonentzat ingurune erraztaileak sortuz lagunkoitasunaren arloan. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Guztira 11 jardunbide egoki jaso ziren, eta 3.000 euroko saria eman zitzaion Gasteizko Udalak aurkeztutako "Estamos contigo" ekimenari. Gizarte-erabilgarritasunari eta -inpaktuari dagokionez, nabarmendu behar da sari honen deialdiak ekintza boluntarioaren hazkundea eta lankidetza komunitarioko partaidetza-mugimenduak bultzatzen dituela Euskadin zahartzen diren pertsonekin eta haien artean eta adiskidetasun-prozesuetan. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Lagunkoitasunean Jardunbide Egokiak Saria ematea | | 1 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa** |

2.- Araua

- 176/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituena (2002ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.).
- 109/2006 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaio edo adoptatzeagatiko dirulaguntza arautzen duena (2006ko ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.).
- 255/2006 DEKRETUA, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituena (2006ko abenduaren 27ko EHAA, 245. zk.).
- 30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituena (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 121/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena (2018ko abuztuaren 6ko EHAA, 150. zk).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Programaren arauak:

- 176/2002 DEKRETUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2002/08/0204401a.pdf
- 109/2006 DEKRETUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2006/06/0602936a.pdf
- 255/2006 DEKRETUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2006/12/0606443a.pdf
- 30/2015 DEKRETUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501448e.pdf
- 121/2018 DEKRETUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804066e.pdf

Emate-ebazpena: laguntzen esleipena edo ukapena ebazpen zehatzaren eta bereiziaren bidez egiten da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko Dekretuen xedea familientzako dirulaguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzen.

Programan honako jardun-ildo hauek azaltzen dira:

- Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko dirulaguntzak.
- Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko dirulanguntzak.
- Nazioarteko adopzioagatiko dirulaguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020ko urtean, programari 28.657.600,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 21.855.400,00 eurokoa izan zen (%76,26).

Gastu osoa 30/2015 Dekretua aplikatuz emandako laguntzei dagokie. Horietatik 27.774 ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren, 232 erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak eta 2 nazioarteko adopzio sinpleagatiko laguntzak.

Gainera, 379 kasutan onartu zen %33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortzearen ondoriozko dirulaguntzak bikoiztea.

Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez:

- 6.188 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren.
- 13.045 laguntza, bigarren semeagatik edo alabagatik.
- 8.541, hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera:

- Gastuaren %19,65 (4.293.600,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten.
- Gastuaren %34,13 (7.459.800,00 euro) Gipuzkoako espedienteek.
- Gastuaren %46,22 (10.102.000,00 euro) Bizkaiko espedienteek.

Seme-alaben jaoitzagatik edo adopzioagatik eta mantenuagatik ematen diren laguntzen programak eragin handia eduki du gizartean abian jarri zenetik; horren adierazgarria da aldi jakin batean EAEn izandako jaiotzen eta aurkeztutako hasierako eskaeren arteko konparaketa, hau da, programaren estaldura-tasa.

Fitxa hau egiteko datan 2020an izandako jaiotzei buruzko informazio osoa ez dagoenez, 2019ko datuak erabiliko dira. Eustatek emandako informazioaren arabera, urte horretan 15.418 haur jaio ziren, eta 14.411 hasierako eskaera aurkeztu ziren programara, 14.668 seme-alabari zegozkienak; hau da, estaldura-tasa %95,14koa izan zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Lehen seme-alabarengatiko laguntzak. | 7.492 | 6.188 |
| Bigarren seme-alabarengatiko laguntzak. | 17.589 | 13.045 |
| Hirugarren seme-alabarengatiko edo hurrengoengatiko laguntzak. | 10.469. | 8.541 |
| Erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazio anitz eta nazioarteko adopzioengatiko laguntzak. | 518 | 243 |
| %33 edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa. | 643 | 379 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Familiei laguntzeko neurri espezifikoen programa, COVID-19 koronabirusaren eragin ekonomikoari premiazko erantzuna emateko** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituena COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| 2020eko apirilaren 8eko Agindua:<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001903e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua familiei laguntzeko neurri espezifikoak sortzea da, COVID-19 koronairuak familien ekonomian izan zuen eragin ekonomikoari premiazko erantzuna emateko. Eragin hori, hain zuzen ere, hedapenaren ondorioz eragindako osasun-krisiari aurre egiteko eta hura kudeatzeko hartu ziren jarduketen eta euste-neurrien ondorio zuzena izan zen, bai eta COVID-19 kodearen komunitate-transmisioa saihesteko ere.

Familiei laguntzeko eremuan egokientzat jo ziren neurri espezifikoak honako hauek izan ziren: alde batetik, familia eta lana bateragarri egiteko laguntza-programa espezifiko bat antolatzea, lan aktiboan dauden langileei zuzendua. Programa horrek egiaztatu beharko du, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko eta hura kudeatzeko hartutako jarduketen eta neurrien ondorio zuzen gisa, beren seme-alaben laguntza-, arreta- eta zaintza-betebeharrak beren gain hartu beharko lituzketela, beren adina dela eta, mendekotasuna duten pertsonen (kutsatutako edo gaixorik dauden pertsonak) edo gaixorik dauden pertsonen seme-alabei laguntzeko betebeharrak.

Salbuespenezko programa hau independentea eta aldi baterakoa da, eta Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuak araututako laguntzen osagarria, eta bere helburua da diru-sarrerak galtzea konpentsatzea, baldin eta horrek berekin badakar lantokitik edo lanpostutik joan behar izan duten langileen soldata murriztea lanaldi osoan edo, zati batean, goian aipatutako zaintza-lanak eta zaintza-lanak egiteko.

Eta, beste alde batetik, eta lan-eszedentzian dauden langileei dagokienez, gurasoek urtebetetik beherako adingabearen jaiotzagatik eta zaintzagatik baliatzen dituzten ordaindutakoaren araberako prestazioen aldiak parekatzeko laguntzen onuradun izan daitezkeenei dagokienez, malgutu egin behar da eszedentzian ez dagoen gurasoak enplegu-egoera aktiboan egon behar duela, diruz lagun daitekeen aldi osoan, dagokion lanaldi-egoeran eta lan-kontratuari alta emanda egon den kasuetan.

| |
|---|
| Diruz lagundu daitekeen gehieneko aldia 2020ko martxoaren 9tik alarma-egoeraren adierazpena indarrean galdu zen egunera artekoa da, edo, hala badagokio:<br>A. Eskola-jarduera etetea amaitu zen egunera arte, eskola-jarduera ikastetxe bakoitzaren eskola-egutegiaren arabera hartuta.<br>B. Honako zentro hauek (haurtzaindegiak, mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako zentroak, gizarte-zerbitzuetako eguneko zentroak, edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako eta gizarteratzeko zentroak) berriz irekitzen diren egunaren edo laguntza-, arreta- eta zaintza-eginkizunen aurreko egunera arte. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020an programari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 15.000.000,00 eurokoa izan zen, eta ekitaldian emandako laguntzen zenbatekoa 426.963,58 eurokoa izan zen (% 2,85).

Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera, gastuaren banaketa honako hau izan zen:

- % 18,23 (77.817,67 euro) Arabako espedienteetarako (96 onuradun)
- % 30,88 (131.830,50 euro) Gipuzkoako espedienteetarako (149 onuradun).
- % 50,90 (217.315,41 euro) Bizkaiko espedienteetarako (251 onuradun).

Hasierako itxaropenetatik oso urrun geratu da programa hau gauzatzea. Arrazoi posible gisa: EEE/ERTE asko gertatu ziren, eta enpresek telelana egiteko aukera eman zuten. Bi egoera horien ondorioz, familia askok, laguntza horiek eskatzeko gai zirenek, familia eta lana bateratu ahal izan zituzten, laguntza horiek eskatu beharrik gabe. Bestalde, baietsi zen eskabideak ia osorik izapidetu eta ordaindu ahal izango zirela 2020ko ekitaldian, baina ez da horrela izan. Azkenean 2021eko ekitaldian 2020an baino laguntza gehiago ordainduko direla uste dugu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Laguntzen onuradunen kopurua | Ez zen ezarri | 496 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa** |

2.- Araua

- 177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (2020ko ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.).
- 2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).
- 31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.
- 5/2017 LEGEA, apirilaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018, urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena (EHAA zbia,22, apirilaren 22), 2019. urtera arte egongo da indarrean.
- 164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (2019ko urriaren 31ko EHAA, 208. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- 177/2010 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003308a.pdf.
- 2010eko ekainaren 30eko Agindua:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003341a.pdf
- 154/2012 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902174e.pdf
- 31/2015 Dekretua : https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501449e.pdf
- 32/15 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501450e.pdf
- 2015eko apirilaren 1eko Agindua:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/04/1501673e.pdf
- 5/2017 Legea: http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706289e.pdf
- 164/2019 Dekretua: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1905022a.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

164/2019 Dekretuak familia eta lana bateragarri egiteko hiru laguntza-ildo aurreikusten ditu, langileei zuzenduta:

1. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Bi jarduera-ildotan banatuta:
   a. Lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko (2020 da lerro honek aurrekontu-zuzkidura duen lehen urtea).
   b. 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran eta 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa-egoeran dauden langileentzako laguntzak.
2. Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak.
3. Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020an programari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 52.145.650,00 eurokoa izan zen, eta ekitaldian emandako laguntzen zenbatekoa 22.032.331,46 eurokoa izan zen (% 42,25), horrela banatuta:

- 19.718.645,89 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu (4.373.384,14 €) edo lanaldia murriztu (15.345.261,75 €) duten langileentzako laguntzetarako; 12.727 pertsona izan ziren onuradunak. Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera.
  - % 21,16 (4.173.004,69 euro) Arabako espedienteetarako.
  - % 37,46 (7.386.886,82 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
  - % 41,38 (8.158.754,38 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
- 731.746,40 euro mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu (105.595,36 €) edo lanaldia murriztu (626.151,04 €) duten langileentzako laguntzetarako, 421 pertsona izan baitziren onuradun. Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera:
  - % 20,15 (147.431,60 euro) Arabako espedienteetarako.
  - % 30,37 (222.238,79 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
  - % 49,48 (362.076,01 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
- 294.020,56 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzetarako izan ziren, eta 276 pertsona izan ziren onuradunak. Gastu osoa honela banatu zen lurraldeka:
  - % 9,06 (26.631,02 euro) Arabako espedienteetarako.
  - % 29,44 (86.545,42 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
  - % 61,51 (180.844,12 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
- 1.287.918,61 euro lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko, eta 322 pertsona izan ziren onuradunak. Gastu osoa honela banatu zen lurraldeka:

- % 6,18 (79.624,63 euro) Arabako espedienteetarako.
- % 28,09 (361.731,67 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
- % 65,73 (846.562,31 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

Programa horrek, 2020an, onuradunen kopuruak behera egin du 3 lerroetan, ziur aski Covid-19ren ezohiko egoerak eraginda. Aurrekontu-programarako ezarritako adierazleak betetzeari dagokionez, honako hauek dira magnitude eguneratuak eta horien aldaketak 2019ko ekitaldiarekiko:

- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen onuradunak, 2020an: 12.727 (% 84,07s/2019) eta Gauzatze-gradua: % 70,71.
- Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen onuradunak 2020an: 421 (% 90,73 s/2019) eta Gauzatze-gradua: % 97,91.
- Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen onuradunak 2020an: 276 (% 79,77, s/2019) eta Gauzatze-gradua: % 68,15.
- Lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko onuradunak 2020an: 322 eta gauzatze-gradua: % 3,58

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran eta 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa-egoeran dauden langileentzako laguntzak. Onuradun kopurua | 18.000 | 12.727 |
| Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Onuradun kopurua | 430 | 421 |
| Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak. Onuradun kopurua | 405 | 276 |
| Lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko Onuradun kopurua | 9.000 | 322 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Udal mailako Harrera-sarea sendotzea: Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa) eta Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa).** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2020ko uztailaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen baitira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei 2020.urterako. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/08/2003449a.pdf<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/11/2005112a.shtml<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/12/2005511a.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea da toki-erakundeek beren ekimenez egindako esku-hartze soziala sustatzea, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean horrelako tokierakundeak laguntzeko.

Programak bi diru-laguntza lerro ditu, ondorengo helburu desberdinekin:

- TEC lerroaren bidez immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren mantentzea finantzatuko da, 2019an indarrean zeuden kontratazioen kasuan, eta kontratazio horiek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako dirulaguntzak jaso badituzte, gai horretan giza-baliabide espezializatuak edukitzeko xedez. Lerro horretara bideratutako partida 381.920 eurokoa da.
- LOC lerroaaren bidez immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko lanak ere finantzatuko dira. Lerro horretara bideratutako partida 498.080 eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- Harrera eta integrazioaren aldeko lanerako jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio tresna sendotzea (TEC lerroa): 2020an 15 immigrazio teknikarien kontratazioa finantzatu da 11 erakunde publikoetan, 346.927,25 euroko zenbatekoaren bidez.
- Kultura-artekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko bitartekoak ezartzea (LOC lerroa): 2020an jasotako 28 eskarietatik, 28ri eman zaie dirulaguntza. 441.155,80 euroko zenbatekoaren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Erakunde-kopurua (TEC 2019) | 12 | 11 |
| Erakunde-kopurua (LOC 2019) | 30 | 28 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak**

2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802397e.pdf
EBAZPENA, 2020ko martxoaren 9koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzen deialdia egiten baita. (EHAA 88, 2020ko maiatzaren 12koa) https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2001960e.shtml
EBAZPENA, 2020ko irailaren 14koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia ebazten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako eta gainerako toki-entitateentzako laguntzetarako.. (EHAA 201.zk. 2020ko urriaren 13koa): https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/10/2004203a.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia egitea. Proiektu horiek gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatu behar dituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 74 proiektu diruz lagundu dira. Proiektuak 39 udalerritakoak dira. 250.000 euro banatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Erakunde parte-hartzaileen zenbakia | 40 | 39 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| 57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| 57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena. (EHAA 85. zb., 2018ko maiatzaren 4koa)<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802397e.pdf<br>EBAZPENA, 2020ko martxoaren 11koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei dirulaguntzak emateko. (EHAA 88.zb., 2020ko maiatzaren 12koa)<br>https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2020/erakundeak-giza-eskubideak/y22-izapide/eu<br>EBAZPENA, 2020ko irailaren 30ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen deialdia.. (EHAA 203.zb., 2020ko urriaren 15koa).<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/10/2004262a.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatzea. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Guztira, 297 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak. Proiektuok 136 erakundek aurkeztu dituzte. 900.000 euro banatu dira. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Programan parte hartu dutenen elkarteen zenbakia | 70 | 136 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa** |

2.- Araua

| |
|---|
| 110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen dueña. (EHAA 116.zk, 2014ko ekainaren 20).

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf

EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2020ko deialdia egiten baita. (EHAA 107. zk, 2020ko ekainaren 3a).

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002150e.shtml

EBAZPENA, 2021ko martxoaren 4koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten tokiko bizikidetzaren arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2020ko laguntzak. (EHAAn argitaratzeko prozesuan).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Guztira, 46 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 16 erakundek aurkeztu dituzte. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diru laguntza jaso dute proiektu kopurua | 25 | 46 |
| Parte hartu duten erakunde onuradunak | 10 | 16 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa**

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa (EHAA 116.zk, 2014ko ekainaren 20).
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf
EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez hezkuntzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2020ko deialdia egiten baita. (EHAA 107. zk, 2020ko ekainaren 3a).
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002149e.shtml
EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko laguntzak. (EHAA 50. zk, 2020ko martxoaren 12a).
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001508e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2020ko deialdia egitea. Programa honen bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 180 proiekturi eman zaizkio diru-laguntzak; proiektuok 22 erakundek aurkeztu dituzte eta 168 eskolatan egin dituzte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diru laguntza jaso dute proiektu kopurua | 160 | 180 |
| Parte hartutako erakundea onuradunak | 20 | 22 |
| Parte hartu duten ikastetxeak | 70 | 168 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa** |

2.- Araua

| |
|---|
| 110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.(EHAA 116. zk, 2014ko ekainaren 20). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| 110/2014 DEKRETUA (EHAA 116. zk, 2014ko ekainaren 20).<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf<br>EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez herritarren parte-hartzearen esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2020ko deialdia egiten baita<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002148e.shtml<br>EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin bonuak Programaren 2020ko laguntzak. (EHAAn argitaratzeko prozesuan). |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Programa horren bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Guztira, 56 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 42 erakundek aurkeztu dituzte. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Elkarte onuradunak: | 10 | 42 |
| Finantziatu den proiektu kopurua | 25 | 56 |